


*Nazio  
euskaldunaren  
atarramentua*

**Joxe Manuel  
Odriozola**

**Lizarribarren artikulu  
bilduma aurkeztu nahi  
dizuegu**



- ◆ Hamarkada honetan Joxe Manuel Odriozola Lizarribarrek *Berria* egunkarian argitaratu dituen **artikuluen bilduma** duzu liburu hau, zeina **Herrima Argitalpenak** eta **Gureberriak** independentziarako komunikabide digitalak argitaratu baitute. Alde horretatik, gure eskerrik beroena adierazi nahi diogu *Berriari*.
- ◆ Hitzaurrea **Onintza Odriozola Irizarrek** izkiriatu du, idazlearen beraren alabak.
- ◆ Azala **Josevisky** irudigilearen eskuek egin dute.
- ◆ [www.herrima.eus](http://www.herrima.eus) webgunean dago eskuragarri liburua.
- ◆ **Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azokan** ere atzeman ahal izanen da, **ekainaren 4an**, Herrima argitaletxearen mahaian.

Zer egin nazio dominatzaileak nazio dominatuaren ezaugarri nazionalak errotik erauzi dizkizunean? Zer egin nazio hizkuntzarik gabe? Zer egin nazio kulturarik gabe? Zer egin nazio identitatearen gainerako ezaugarri nagusiak ere erauzi dizkizutenean? Azken beltzean, zer egin naziorik gabe, mundua nazio egituren arabera antolatua dagoenean?

Euskal Herritik geratzen den hondar honi Euskal Herria deitzen diogunean, euskalduntasun kolonizatu bat onartzen ari gara aldez edo moldez. Eta euskalduntasun etnokultural, erregional eta folkloriko horretara errenditzen ditugu gure nazio nortasuna, eskubideak, duintasuna eta askatasuna. Abertzale asimilatuz josita dagoen nazio euskaldunak, ezinbestez, atarramentu gaiztoa.

**Liburua aurkeztu dute, maiatzaren 25ean, Galdakaon (Bizkaia),  
Orreaga taldearen XLVI. hitzaldi zikloa ekimenaren barnean.**



Joxe Manuel Odriozola, erdian; Ainar Artetxe, haren ezkerrean, aurkezle lanetan; eta Onintza Odriozola Irizar, hitzaurrearen egilea, eskuinean.

## *Artikulu bildumaren muina:*

Joxe Manuel Odriozola Lizarribar soziolinguistikan autodidakta da, eta urteak eta urteak daramatza hartaz hausnartzen eta hausnarketak praktikara ekartzen.

Onintza Odriozola Irizar alabak idatzitako hitzaurrean halaxe laburtzen du aitaren ikergaia: "Oro har, hizkuntza eta nazionalismoa, nazionalismoa eta hizkuntza, gurpil zoro horretan mugitu da gure aita, gurpil zoro horrek mugitu du gure aita".

Liburua bost ideiaz laburtu du **Onintza Odriozola Irizarrek**:

- ◆ Soziolinguistikako ohiko kontzeptuak eta hiztegia alde batera utzi eta hizkuntzaren arazo politikoa nazionalismoaren agertokian jorratzen du.
- ◆ Ezinbestekoa zaio autoreari estatu nazionalen nazionalismo linguistikoa aztertzea eta ez du ontzat jotzen botere harreman horiek esplizitatu ez dituen hizkuntzaren soziologiarik.
- ◆ Globalizazioa globalizazio, Frantziako eta Espainiako estatuen nazionalismo linguistikoko espantsionista ez da murriztu.
- ◆ Estatu aparatuek ezak, botere nazionalik ezak, euskaldunon hizkuntza nazionalaren hondoratzea ekarri du.
- ◆ Euskal komunitateak behar du nazio euskaldun gisa funtzionatu, estaturik balu erdal itoginez betetako aterpea bailitzateke bestela, euskaraz osoki bizi nahi dutenentzat.

Harremanetarako:

(00 34) 638 409 331

**[argitara@herrima.eus](mailto:argitara@herrima.eus)**